



Arartekoaren 2023R-1736-23 Ebazpena, 2023ko azaroaren 16koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduraren administrazio-espedientea eskuratzeko eskubidea aitortu dezala.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar baten kexa izapidetzeko onartu zuen. Herritarrak kexa jarri zuen ez zegoelako ados Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak babes publikoko etxebizitzak erosketa-araubidean adjudikatzeko prozesuaren administrazio-espedientea eskuratzeko egindako eskaera bati eman zion erantzunarekin.
2. Kexagilea babes publikoko etxebizitza baten adjudikazioduna izan zen sustapen pribatu batean 2023ko apirilaren 3an notario aurrean egindako zozketaren ostean.

Behin betiko proposamenaren berri izan zuenean, adjudikatutako finkari buruzko informazio gehiago eskuratze aldera, 2023ko maiatzaren 22an, idazki bat bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, zeinaren bidez honako hau adierazi baitzuen:

- *"Solicito el listado del resultado del sorteo antes mencionado y el acta notarial del sorteo.*

Solicito copia del expediente completo de la promoción XXX."

3. Informazioa eskuratzeko egindako eskaerari erantzuteko, 2023ko ekainaren 5ean, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren administrazio eta zerbitzuetako arduradunak honako hau adierazi zuten:

- *"...la relación definitiva de solicitudes que iban a participar en dicha promoción fue publicada en la página web de Etxebide el (...) (se adjunta copia del anuncio de dicha publicación) y que la fecha de celebración del sorteo ante notario (lunes 3 de abril) fue publicada en la página web de Etxebide el (...) se adjunta copia de dicha publicación).*

Al tratarse de una promoción privada, habrá de dirigirse a Construcciones XX, S.L. con el fin de recabar información acerca del resto de cuestiones que plantea."

Azken batean, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak zozketaren emaitza eskuratzeko aukera aipatu ere ez zuen egin. Halaber, ez zuen azalpenik eman kexagileari administrazio-espedientea eskuratzeko aukerarik ez emateko arrazoiei buruz.



Era berean, bidalitako erantzunean ez da arrazoibiderik azaltzen kexagileari aukera ematen dionik jakiteko zergatik ez zioten bidali notarioaren aktaren kopia. Alegia, azken alderdi horren harira, erantzunean adierazi zen eraikuntza-enpresara jo behar zuela, ez besterik.

Alabaina, administrazio eta zerbitzuetako arduradunak kexagileari jakinarazi egin zion zozketan onartutakoen behin betiko zerrenda, izena eta abizenak barne, Etxebideren webgunean zegoela eskuragarri.

4. Azaldutako egitateak ikusita, 2023ko uztailaren 7an, Arartekoak lankidetzeta-eskaera igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailera.

Idazki horretan, Arartekoak kexagileak erreklamazioan egindako gogoeten berri eman zuen, eta, horrez gain, txosten bat eskatu zuen, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren administrazio eta zerbitzuetako ordezkariak 2023ko apirilaren 3an izandako zozketaren emaitza eskuratzeko eskaera ezezteko izan zituen arrazoiak eta arrazoi juridikoak azaltzen zituena, bai eta administrazioak zuen espedientearen kopia bat eskuratzeko eskaera ez erantzuteko izandako arrazoiak azaltzeko ere.

Halaber, Arartekoak informazioa eskatu zuen interesdunei zozketara aurrez aurre joaten ez uzteko arrazoiari buruz eta zozketa *streaming* bidez jarraitzeko estekarik ez emateko arrazoiari buruz; izan ere, ohikoa izaten da sustatzaile pribatuek esku hartzen ez duten etxebizitza publikoko sustapenetan.

5. Egindako laguntza-eskaera horren erantzuna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren kabineteko zuzendariarena, erakunde honen erregistroan jaso zen 2023ko uztailaren 21ean, eta horrekin batera Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren administrazio eta zerbitzuetako arduradunak egindako txostena ere bai.

Laburbilduz, txostenak Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak etxebizitzak adjudikatzeko prozeduran barne-kontrola eta kudeaketa egiteko bideratutako jarduketan berri ematen dio Arartekoari.

Espezifikoki, zozketaren emaitzarekin zuzenean lotuta dauden jarduketan harira, txostenak honako hau azaldu zuen:

- *"...la única obligación que establece el artículo 65 de la Orden de 15 de octubre de 2012 (...) es la de comunicación a las personas adjudicatarias por cualquier medio que permita tener constancia de la recepción por la persona destinataria. Por lo tanto, no se establecen obligaciones respecto al resto de personas participantes en el procedimiento.*

Tal y como se apunta en el artículo 65, la promotora privada tiene la obligación de notificar la asignación de la vivienda que le ha correspondido, pero no el resultado completo del sorteo."





Halaber, 2023ko apirilaren 3an izandako zozketaren aktaren kopia eskuratzeko egindako eskaeraren harira, zera dio txostenak:

- *"...el artículo 63 (...) establece que el promotor tiene la obligación de presentar en el plazo de 15 días en la Delegación Territorial de Vivienda correspondiente una copia del Acta Notarial en la que constarán el resultado del sorteo y la lista de espera."*

Aitzitik, hauxe azpimarratzen du:

- *"El artículo 63, que regula el sorteo, no contiene previsiones respecto al derecho de las personas interesadas de consultar el resultado completo del sorteo en las promociones privadas."*

Horrenbestez, honako hau dio amaieran:

- *"No se establecen obligaciones respecto a las personas interesadas."*

Azken batean, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuetako arduradunak baieztatu du kexagileari hizpide den zozketaren emaitza ez ematea, eta berretsi du 2023ko apirilaren 3ko zozketako notarioaren aktaren kopia bat ez emateko erabakia, nahiz eta Lurralde Ordezkaritzak dokumentu hori izan.

6. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13. artikulua ezartzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik zegoen administrazio-erregistroari. Zentzu horretan, aipatutako erregistroari esleitutako eginkizunak babestutako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak adjudikatzearen kontrola egitea eta kudeatzea lirateke.

Bitartean, arauzko garapenik ezean, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak kudeatzeko eta kontrolatzeko erregistroa (Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan jasotzen diren eskakizunen arabera eratu da erregistro hori), bat etorrita dagokion Etxebizitza lurralde-ordezkaritari esleitutako ahalekin.

lido beretik, Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 13. artikulua ezartzen du, hain zuzen ere, "Etxebide" Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoak egin behar duela aurreikusitako hautaketa-prozeduren bidez egindako etxebizitzaren adjudikazioen analisia eta kudeaketa.

Erreklamazio honi dagokionez, gainera, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren V. kapituluaren 60. artikulutik 69. artikulura bitartean berariaz jasota dago sustatzaile pribatuek babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozedura.

Azaldutako kasuan duen garrantzi nabarmenagatik, aipatutako 2012ko urriaren 5eko Aginduaren 63. artikulua zera ezartzen du:

"1.- Prozeduran parte hartzen duten eskatzaileen kopurua sustapeneko etxebizitzaren kopurua baino handiagoa denean, esleipena notarioaren aurreko zozketa bidez egingo da

(...)

3.- Zozketaren emaitza eta itxaronzerrenda notario-aktan jasoko dira; Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan horren kopia bat aurkeztu beharko da, hamabost eguneko epean".

Nolanahi ere, Etxebizitza lurralde-ordezkaritza bakoitzeko titularrei dagokie nola Babes Publikoko Etxebizitzaren eta Zuzkidura Bizitokien Erregistroa hala Babestutako Etxebizitzaren eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa kudeatzea, bai eta kontratuak ikus-onestea ere.

2. Ebazpen honen aurrekarietan azaldu den bezala, kexagilea zozketatutako etxebizitzetako baten adjudikazioduna izan zen.

Hori horrela, 2012ko urriaren 5eko Aginduaren 65. artikuluan jasotako eskakizunei jarraikiz, sustatzaile pribatuak babes publikoko etxebizitzaren adjudikazioaren berri eman zuen eta adjudikazioa formalizatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa bidali zuen salerosketako kontratua sinatuta.

Une horretan bertan, eta notario aurreko zozketaren garapenari buruzko informazioa eskuratze aldera, eskatu zuen emaitzaren zerrenda eta 2023ko apirilaren 3ko notarioaren akta emateko eta administrazio-espeditentia eskuratzeko aukera izateko ere bai.

Alabaina, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuetako arduradunak ezezkoa eman zion kexagileari eskuratu nahi zuen informazioa emateari zegokionez, nahiz eta komunikazioan ez zen jaso erabaki hori arazoitzeko aukera ematen zuen inolako oinarri juridikorik.

3. Puntu honetan, Arartekoak egoki ikusten du gogoraraztea urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak,



13. artikuluan honako eskubide hau aitortzen duela pertsonak administrazioekin harremanetan jartzearen harira:

"Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera".

Azaldutakoaren harira, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. artikulua ezartzen du pertsona guztiek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko Konstituzioaren 105. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Hain zuzen ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak eskuratzeko eskubidearen titulartasuna aitortzen die oso modu zabalean *persona guztiei*, eta ez du beste bereizketarik egiten; Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2009ko ekainaren 18ko Hitzarmenean¹ jasotako antzeko formula erabiltzen da. Hitzarmenak zera dakar 2.1 artikuluan:

- *"Cada Parte garantizará el derecho de cualquiera, sin discriminación de ningún tipo a acceder (...) a los documentos públicos en posesión de las autoridades públicas."*

Hortaz, pertsonari aitortzen zaien eskubidea da, interes jakin bat egiaztatu beharrik gabe.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 13. artikulua honela definitzen du informazio publikoa:

- *"...los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones."*

Azken batean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak erakunde jakin batek duen informazio publikoa (dela informazio hori eratu duelako, dela esleituta dituen eginkizunak egikaritzuz eskuratu duelako) eskuratzeko eskubidea aitortzen eta arautzen du.

Azaldutakoaren harira, Arartekoak azpimarratu behar du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 2. artikulua,

¹ **Europako Kontseilua.** Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzkoa. Tromsø, 2009ko ekainaren 18a, Espainiak 2023ko irailaren 27an berretsia. Eskuragarri hemen: <https://www.coe.int/en/web/access-to-official-documents>. 2023ko urriaren 23ko BOEn argitaratua (253. zenbakia).



legearen aplikazio-eremu subjektiboaz mintzo denean, barne hartzen dituela ere bai *autonomia erkidegoetako administrazioak*.

Hala ere, Arartekoa erabat jakitun da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez dela eskubide mugatu edota absolutua, edozein gairi buruzko informazio publiko guztia eskuratzea bermatzeari dagokionez. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 14. artikulua informazioa eskuratzeko eskubidearen mugaketen zerrenda bat ezartzen du, interes jakin batzuk babesteko, hala nola segurtasun nazionala, defentsa, kanpo-harremanak segurtasun publikoa eta sekretu profesionala eta jabetza intelektuala eta industrialak, beste alderdi batzuen artean.

Gainera, informazioa eskuratzeko aurrez aipatutako mugaketez gain, datuak babesteko arauditik eratorritakoek ere badaude, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 15. artikulua aipatutakoak, hain zuzen.

Hala eta guztiz ere, espedientean dagoen informaziotik, Arartekoak ikusi du Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuetako arduradunak bidalitako komunikazioan ez zela eskaera ezezteko eta ez onartzeko inolako arrazoibiderik eman, eta adierazi zen informazioa eskuratzeko eskaera eraikuntza-entresan egin behar zela, ez besterik.

4. Aurrez azaldutakoarekin lotuta, Arartekoarentzat deigarria da Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuetako arduraduna izatea eskatutako eskuratzeko eskubidea ezeztatu izana jakinarazi duena, eta ez, ordea, sail horretako Zerbitzuen Zuzendaritza bera.

Hain zuzen ere, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 6.2 s) artikulua berariaz ezartzen du sailaren Zerbitzuen Zuzendaritzari zera dagokiola:

“...informazio publikoa eskuragarri izateko eskubidea baliatuz aurkeztutako eskaerei emandako erantzunak”

Horrez gain, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 20. artikuluekin bat, arrazoituak izango dira informazioa eskuratzea ukatzen duten ebazpenak, zati bat eskuratzea baimentzen dutenak edo eskatutako modalitatearen bidez barik beste modu batez eskuratzea baimentzen dutenak eta hirugarren bat aurka azaldu arren eskuratzeko baimentzen dutenak.

Halaber, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 23. artikuluekin bat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 40. artikuluari lotuta, ebazpenean jakinarazi behar da zer errekurtso jar daitekeen administrazio-bidean eta bide judizialean, zer organotan aurkeztu behar den eta jartzeko zer epe dagoen.



Alabaina, Arartekoak egiaztatu du ezen, adierazitakoaren kontra, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako dokumentazioak Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuetako arduradunaren komunikazioa jasotzen duela, informazioa eskuratzeko egindako eskaera ezeztatzen duena, eta ez besterik.

Are gehiago, aipatutako komunikazioak ez du inolako arrazoibiderik kexagileari aukera ematen dionik erabaki horren irismena ezagutzeko, eta ez du adierazten zer aurkaratze-baliabide duen administrazio-espeditentean dagoen dokumentazioa eskuratzeko duen uzia defendatu nahi izanez gero.

5. Administrazio izapidetzean behar bezalako arreta edo arreta izateko betebeharra administrazio ona izateko eskubidearen funtsezko alderdia da. Hori hala izanda, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du:

- "Este deber constitucional de buena administración, que rige plenamente en los procedimientos (...), exige que las Administraciones Públicas respeten el deber de motivación y los principios de objetividad, transparencia y racionalidad, conforme a lo dispuesto en los artículos 35 y 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

(...)

...la ausencia absoluta de motivación, tanto expresa como tácita o in aliunde, constituye una infracción del artículo 35 de la Ley 39/2015, en cuanto impide conocer las razones o motivos que justificaron la decisión adoptada.

En este contexto, referido al deber de la Administración de cumplir las garantías procedimentales, consideramos que se ha infringido el derecho al procedimiento debido."²

Hori dela eta, inolako arrazoibiderik ezak herritarren posizio juridikoari kalte egiten dio, eta herritarrak ziurgabetasun-egoeran jartzen ditu erabakia hartzeko baliatutako kausak ezagutzeko orduan.

Hala, jardunbide horiek eragotzi egiten dute pertsonak argi, zehatz eta berariaz jakitea zein den planteatu duten uziari buruz administrazioak duen asmoa eta hori oinarritzen duen argudioa, eta herritarrei ez die aukerarik ematen jakiteko administrazioak zer argudio-oinarri erabili duen eskatutakoa ez onartzeko, eta horrek ezinezko egingo du asmo hori indargabetzen saiatzeko balizko prozedura judizial baten barruan aurkaratzea.

² **Auzitegi Gorena.** 505/2021 Epaia, apirilaren 14koa. [ECLI:ES:TS:2021:1387]



Horregatik guztiagatik, zuzenbideko oinarriak eta egitateak labur jasotzen dituen arrazoibiderik ez emateak, azaldu den bezala, benetako babesgabetasun-egoera eragin dezake, eta, nolana ere, ordenamendu juridikoak debekatutzat jo behar du egoera hori, eta ez du lekuri euskal administrazio publikoei eska dakiekeen zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko baten eskakizunei egokitutako jarduketa eta funtzionamenduan.

6. Orain arte azaldutakoaz gain, zuzeneko ikuspegi juridikotik, Arartekoak egiaztatu du kexagileak, zozketan parte hartu eta etxebizitzetako baten adjudikazioduna izan zenak, aipatutako prozeduran interesdun dela egiaztatu duela.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 4. artikulua adierazten du administrazio-prozeduran interesdun izatea dela:

“a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.

b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.

c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran”.

Horri dagokionez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen lehenengo xedapen gehigarriak zera adierazten du:

- *“La normativa reguladora del correspondiente procedimiento administrativo será la aplicable al acceso por parte de quienes tengan la condición de interesados en un procedimiento administrativo en curso a los documentos que se integren en el mismo.”*

Azken batean, xedapen horrek ezartzen du administrazio-prozedura bateko interesdunei dagokien posizio juridikoa, prozeduraren funtsa den informazio publikoa eskuratzeari dagokionez, ez dela soilik informazio publikoa eskuratzeko eskubideari aplikatu dakiokeen araubide juridikoaren arabera definitzen, baizik eta administrazio-prozeduraren legeriak espedientea eskuratzeko aitortzen dituen indar handiagoko eskubideen arabera.

Beraz, egokiena da izapidetzen ari den administrazio-prozedura baten interesdunek aukera izatea espedientea normaltasunez eskuratzeko eta izapidetzen duen organoak berak bermatzea eta eraginkor egitea eskubide hori, interesdunek gehien komeni zaien epean benetan egikaritzeko ahalik eta ebazpen onuragarriena izateko, ez berez informazioa eskuratzeari dagokionez, baizik eta prozedura nagusian.

Alabaina, Arartekoak gogorarazi behar du ezen, administrazioaren organo eskudunak informazioa eskuratzeko egindako eskaera ezeztatuz gero, prozedura



normaltasunez aurrera jarraitzea gorabehera eta gaia ebazteko orduan espedientea eskuratzeko baimenik ezak izan ditzakeen aurkaratze-eraginei kalterik egin gabe, ez dagoela eragozpenik interesdunak gardentasunari buruzko legeriak ezarritako bermearen bide berezira jotzeko³.

7. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 53.1 a) artikuluan azaldutako argudioekin bat, berariaz ezarrita dago interesdunek honako eskubide hau dutela:

“Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; (...) Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko”.

Aitzitik, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak Arartekoari erantzuteko txostenean zera argudiatu du: *“no se establecen obligaciones al respecto con las personas interesadas”.*

Egia izan arren 2012ko urriaren 15eko Aginduak ez duela inola ere aipatzen interesdunen betebeharrak eta bermerik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ezin ditu alde batera utzi interesdunek administrazio publikoekiko harremanen esparruan dituzten eskubideak zeinak zuzenean babestuta baitaude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.

Azaldutakoan oinarrituta, Arartekoak ez du inolako kausarik ikusten Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzaren erantzunean kexagileak informazioa eskuratzeko egin duen eskaera mugatzeko aukera ematen duenik.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, justifikaziorik ere ez dago Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak kexagileari adierazteko etxebizitzaren sustapenaz arduratu zen enpresara jo behar zuela, enpresa hori izan zedin zozketaren emaitza eta notarioaren akta bidaltzearen egokitasuna ebaluatzen zuena.

Azken batean, eta behar bezala egiaztatuta geratu denez, eskaera formalizatzeko unean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bazituen zozketaren emaitza eta notarioaren akta adjudikazioen behar bezalako kontrola egiteko eta salerosketako kontratuak egokiro ikus-onesten zirela bermatzeko.

Hortaz, Arartekoaren iritziz, kasu honetan, kexagileak formalizatzeko eskaera azaldutako araudian behar bezala babestuta egon zen, eta, horrenbestez, informazioa eskuratzeko aukera eman behar zioten; izan ere, egiaztatu da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez zuela egiaztatu

³ **Comissió de Garantía del Dret d' Accés a la informació Pública (GAIP).** 560/2023 Ebazpena, ekainaren 29koa. Eskuragarri hemen: https://www.gaip.cat/web/.content/pdf/Resoluciones-2023/20230629_Resolucio_560_2023_estimacio_158_2023_CAST.pdf



edota baieztatu zozketaren emaitza eskuratzeko eskubidea benetan aitortzeko inolako mugaketarik zegoenik, eta ez zen erabaki horretarako arrazoibiderik eman.

8. Azkenik, Arartekoa bat dator Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzarekin, puntu batean: 2012ko urriaren 15eko Aginduak etxebizitzaren sustatzaile pribatuari ez dio exijitzen zozketa publikoa egiterik edota prozeduran parte hartzen dutenek zozketa urrunetik ikusteko esteka bat partekatzeke betebeharririk.

Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, adjudikazio-prozedura horietako espedientean dagoen dokumentazioa eskuratzeko are garrantzi handiagoa du. Eskatutako dokumentazioa gardentasun osoz eskuratzeko aukera ematearen xedea da interesdunek benetako kontrola egin ahal izatea adjudikazio-prozeduran egindako jarduketaren gainean, ez besterik.

Testuinguru horretan, Arartekoak adierazi nahi du administrazioek objektibotasunez zerbitzatzen dituztela interes orokorrak, eta fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioen arabera jokatu behar dutela.

Kasu honetan, interesdunei esteka bat ematea zozketa zuzenean jarraitu ahal izateko edota zozketa izan ondoren ikusi ahal izateko ez da, erakunde honen iritziz, gehiegizko esfortzua.

Izan ere, Arartekoak badaki sistema hori bera erabili ohi dela sail horrek berak sustatutako babestutako etxebizitzak erosketa-araubidean adjudikatzeko prozeduretan, eta Irekia webgunean eskuragarri egoten da.

9. Oro har, Arartekoak positiboki baloratzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan gardentasuna bermatze aldera egindako ahalegina.

Alabaina, ez da arrazoizkoa, ezta legitimoa ere, azaldutakoa ikusita, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak erabaki izana kexagileak zozketaren emaitza ezagutzeko duen eskubidea ukatzea.

Ez dirudi zuzena denik Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak jotzea kasu honetan behar bezala bermatu dela kexagileak, prozeduran interesdun den aldetik, informazioa eskuratzeko duen eskubidea.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:





GOMENDIOA

Azaldutakoari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, behin azaldutako mugaketak haztatu ondoren, kexagileak administrazio-espeditentea eskuratzeko duen eskubidea aitortu dezala eta zozketaren emaitzen kopia bat eman diezaiola.

Halaber, Arartekoren iritziz, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak behar bezala koordinatu ditzala informazioa eskuratzeko eskaerak ebazteko egiten dituen jarduketak eta hartzen dituen erabakiak arrazoitu ditzala zuzenbideko oinarriak eta egitateak labur aipatuta.

Azkenik, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak hausnarketa egin dezala sustatzaile pribatuei ere interesdunei zozketa ikusteko aukera eman diezaietela exijitzeari buruz. Hori guztia, babestutako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan kudeaketaren eta kontrolaren gardentasun osoa bermatzeko.

